



**GRADUA (TITULAZIOA):**

**KUDEAKETAREN ETA INFORMAZIO SISTEMEN  
INFORMATIKAREN INGENIARITZAKO GRADUA**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

2014 / 2015

*MOODLE2EDX*

**LANAREN MEMORIA**

**IKASLEAREN DATUAK**

IZENA: ALEXANDER

ABIZENAK: VALERO PEÑAFIEL

SIN.:

DATA:

**ZUZENDARIAREN DATUAK**

IZENA: JUAN ANTONIO

ABIZENAK: PEREIRA VARELA

SAILA: HIZKUNTZA ETA SISTEMA INFORMATIKOAK

SIN.:

DATA:

## Aurkibidea

1. Proiektuaren helburu dokumentua.....	6
1.1 Deskribapena.....	6
1.2 Helburua.....	6
1.3 Norainokoa.....	6
1.4 Azpiatazen zerrenda.....	7
1.4.1 Prestakuntza.....	7
1.4.2 Moodle.....	7
1.4.3 EDX.....	7
1.4.4 Script-ak.....	7
1.5 Emangarrien zerrenda.....	8
1.6 Planifikazioa.....	9
1.7 Arriskuen analisia.....	10
1.8 Lan metodologia.....	11
1.9 Bideragarritasuna.....	11
1.9.1 Bideragarritasun kontzeptuala.....	11
1.9.2 Bideragarritasun ekonomikoa.....	12
1.10 Lanaren deskonposaketa egitura diagrama.....	13
2. Softwarearen garapenerako prozesu bateratua.....	14
2.1 Eskakizunen bilketa.....	14
2.2 Domeinuaren eredu.....	15
2.2.1 Moodle2Edx.....	15
2.3 Erabilpen kasuak.....	16
2.4 Diseinua.....	17
2.4.1 Arkitektura.....	17
2.4.2 Soluzioaren Funtzio garrantzitsuak.....	18
2.4.3 Sekuentzia Diagrama.....	18
2.5 Inplementazioa.....	20
2.5.1 Moodle sarrera.....	20
2.5.2 Moodle instalazioa.....	21
2.5.3 Moodle ikastaroen egitura.....	22
2.5.4 Moodle Backup.....	23
2.5.5 Moodle backup egitura.....	25
2.5.5 EDX sarrera.....	27
2.5.6 EDX instalazioa.....	28
2.5.7 Edx arkitektura.....	30
2.5.8 MongoDB.....	31
2.5.9 Edx ikastaroak Studio-n.....	33
2.5.10 Edx backup egitura.....	34
2.5.11 Itzulpen estrategia.....	37

2.5.12 Kodea.....	50
2.6 Kudeaketa.....	54
3. Helburu eta emaitzen erkaketa.....	57
3.1 Ordu kopuruaren analisisa.....	57
3.2 Ondorioak.....	58
3.3 Zailtasunak.....	58
4. Kontsultatutako web orriak.....	59

## Irudiak

Gantt diagrama.....	9
Lanaren deskonposaketa diagrama.....	13
Domeinuaren eredia Moodle2Edx.....	15
Erabilpen kasua Moodle2Edx.....	16
Arkitekturaren diagrama.....	17
Sekuentzia diagrama.....	19
Moodle osagaiak.....	21
Moodle activities.....	22
Moodle resources.....	22
Moodle backup settings.....	23
Moodle schema settings.....	24
Perform backup pantaila.....	24
Moodle backup egitura.....	25
EDX arkitektura.....	30
MongoDB-ren kokapena Edx-ren arkitekturan.....	31
Edx interfazea.....	33
Edx elementu nagusiak.....	33
Course export.....	34
Edx backup egitura.....	35
Vertical motak.....	36
Edx elementu hierarkia.....	36
Label bat moodle-en.....	37
Label elementuaren egitura.....	37
Label elementua Edx-n.....	38
URL elementua moodle-en.....	38
URL elementuaren egitura.....	39
URL elementua Edx-n.....	39
Multiple choice galdera bat moodle-en.....	40
Itzulpenaren mapeoa.....	41
True/False galdera bat moodle-en.....	42
True/false galderen mapeoa.....	42
True/false galdera bat Edx-n.....	43
Short answer galdera bat moodle-en.....	43
Short answer galderen mapeoa.....	44
Short answer galdera bat Edx-n.....	45
Fitxategi baten esteka moodle-en.....	45
Fitxategi baten egitura moodle-en.....	46
Fitxategi bat Edx-n.....	46
Foroen egitura moodle-en.....	47

Post baten egitura Edx-n.....	48
Edx-ko foroaren itxura.....	49
Foro galdera 1.....	54
Foro galdera 2.....	55
XChat 1.....	55
XChat 2.....	56
Ordu konparazioa.....	57

# 1. Proiektuaren helburu dokumentua

## **1.1 Deskribapena**

Proiektua segurtasun kopien itzultzaile bat da, Moodle plataformatik EDXra ikastaroen migrazioa egiteko.

Moodle hezkuntzarako inguru birtualak sortzeko softwarea librea da, kalitatezko ikastaroak eskaintzeko interneten bidez. Bestaldetik, EDX plataforma berriagoa da. MIT (*Massachusetts Institute of Technology*) eta Harvard unibertsitatean sortu da eta arrakasta handia izan du, bere helburua ikasle kopuru handiko ikastaroak eskaintzeko plataforma nagusia izatea da.

Plataforma berri hau indarra hartzen ari denez, erabiltzaile askok probatu nahi izango dute, eta hori posible izateko proiektu hau garatuko da.

## **1.2 Helburua**

Proiektu honen xedea plataforma batetik bestera pasatzeko jarraitu behar den prozesua erraztea da, ikastaroen eduki gehiena automatikoki pasatuz. Helburua migrazioa modu automatiko batean egitea posible dela demostratzea da.

## **1.3 Norainokoa**

Ikastaroak ez dira itzuliko haien osotasunean, erabakiko da zeintzuk diren gehien erabiltzen diren elementuak eta horiek itzuliko dira. Konprobatu behar da posible dela ikastaroak itzultzea modu automatiko batean, migrazioa egitea ez izateko hain gogorra erabiltzailearentzat.

## **1.4 Azpiatazen zerrenda**

Hasi baino lehen beharrezkoak diren kontzeptu berriak landu dira. Python lengoaiari buruz izandako ezagutza nahiko oinarrizkoa zen. Beraz, autoikaskuntza egin behar izan da hobetzeko.

### **1.4.1 Prestakuntza**

Proiektua garatu ahal izateko Python lengoaia kontrolatu behar izango da. Baliabide nagusia Internet izango da, tutorialak eta eskuliburuak erabiliz Python ikasiko da eta horrekin nahiko izango da Moodle2EDX garatzeko.

Bestaldetik, EDX-ren egituraren azterketa orokor bat eginez gero ikusiko da MongoDB datu basea erabiltzen duela. Beraz beharrezkoa izango da datu base mota honen funtzionamendua aztertzea eta ikastea hurrengo atazetan aldaketak egin ahal izateko. Vagrant motatako makina birtualen funtzionamendua ere ikasi beharko dut.

### **1.4.2 Moodle**

Moodle plataformako instalazioa, proiektu osoarekin egingo den moduan, Ubuntu egingo da. Apache zerbitzari bat, PHP eta MySQL beharko dira eta ondoren plataforma deskargatuko da.

### **1.4.3 EDX**

EDX-ren arkitektura konplexuagoa da eta instalazioarekin hasi baino lehen bere egituraren azterketa bat egingo da eta ikasi behar da bere funtzionamendua Interneteko informazioa bilduz. Gainera eskakizunen azterketa bat egingo da jakiteko zer motatako hardware-a beharko den eta zer motatako kontzeptuak ikasi beharko diren plataforma hau inplementatzeko. Makina fisikoan Moodle izango denez, EDX instalatzeko Vagrant makina birtual bat inplementatu beharko dut.

### **1.4.4 Script-ak**

Script-en zatia garatzeko hiru fase nagusi jarraituko dira:

- Analisia: aztertuko da zer itzuli nahi den, zeintzuk izango diren Script-en helburuak. (Erabilpen kasuak, domeinuaren eredia...)
- Diseinua: erabakiko da zenbat Script garatuko diren, haien arkitektura, erabili beharreko klaseak, eta beharko diren funtzioak. Hau guztia antolatzeke klase diagramak, funtzioen deskribapenak eta sekuentzia diagramak erabiliko dira.


- Inplementazioa: antolatutako Script-ak garatuko dira eta elementu desberdinen mapeoak egingo dira datuak pasatzeko egitura batetik bestera. (Moodle-etik EDX-ra)

## **1.5 Emangarrien zerrenda**

- Memoria (PDF)
- Eskuliburua erabiltzailearentzat (TXT)
- Script



# 1.6 Planifikazioa



Irudia 1: Gantt diagrama

Denboraren planifikazioa azaltzeko Gantt diagrama bat erabili da. Diagrama honetan adierazten da zenbat denbora emango den proiektuaren zati bakoitzarekin, zati nagusiak azpiekintzatan banatuz. Ekintzak koloreekin adierazten dira, berdez markatuta daudenak nagusiak dira, urdinez azpiekintzak eta morearekin hirugarren mailako ekintzak dira. Adibidez, “Python” “autoikazkuntza”-ren azpiekintza da, beraz taulan berdez markatu da zati hori betetzeko behar izan den denbora adierazteko.

Diagrama honetan nabaritzen da proiektu honetan azterketa eta analisi prozesuak izan duen garrantzia oso handia izan dela. Gainera kontzeptu berriak ikasi behar nituzenez lehenengo fasean denbora luze erabili zen ikasteko, diagraman ikusten den moduan.

## **1.7 Arriskuen analisia**

Proiektu bat hasi baino lehen gertatu ahal diren arazoak bilatu behar dira. Horrela, arazo horiek gauzatuko lituzkeen kalteak saihestuko dira. Kontuan hartu behar da ezin dela dena kontrolpean eduki, baina analisi hau oso lagungarria izango da proiektua aurrera eraman ahal izateko.

### **- Informazio galerak**

Iraupen luzeko proiektuetan, mota askotako arazoak gerta daitezke. Proiektuaren iraunkortasuna eta izan daitezken arazoak proportzioanalak dira. Datuen galerak ekarri ahal dituen fatoreak zerrendatuko dira:

- Hardware arazoak
- Software arazoak
- Antolakuntza falta
- Hondamendi naturalak

Arazo hauek ekiditeko segurtasun kopiak egingo dira astero, gailu fisikoetan eta “hodeian” (Google Drive).

### **- Arazo teknikoak plataformekin**

Konputagailu berdinean bi plataforma instalatuko dira, bakoitza bere zerbitzariarekin eta haien egitura konplexuekin. Gerta daiteke instalazioan zatiren bat gaizki konfiguratzea eta etorkizunean arazoak sortzea horren ondorioz. Edo bi plataforma hauek aldi berean funtzionatzen edukitzea karga gehiegi izan daiteke nire makinarentzat.

Horretarako, hasi baino lehen aztertu dira plataforma hauen eskakizunak eta nire makinaren ezaugarriak. Teknikoki proiektua aurrera eramateko gai izango da. Bestaldetik, software arazoak ekiditeko instalazio prozesuari garrantzi eta arreta handiak jarriko dira, instalazio gida ofizialak jarraituz.

## - Beste irakasgaien lan karga

Proiektua eta graduko azken urteko irakasgaiak egingo dira aldi berean. Beraz, gerta daiteke momentu batzuetan irakasgaien lan karga handia izatea eta proiektua alde batera uztea. Hau aurreikusi behar da eta gertatzen bada, ondo dokumentatu behar da zer puntutan utzi zen lana eta zeintzuk ziren hurrengo pausoak gero bueltan arazorik gabe jarraitu ahal izateko.

## - Arazo pertsonalak

Teknikoak ez diren arazoak ere gerta daitezke. Probabilitatea ez da altua baina osasun arazo larriak, lesioak, edo arazo pertsonalak izan daitezke. Arazo hauek ezin izango ditut kontrolatu, egingo dudana izango da epeak zabaltasunez antolatzea zeozer gertatzen bada denbora izateko konpontzeko.

## **1.8 Lan metodologia**

Proiektua garatzeko 2-3 orduko lan saiotan antolatuko da. Lan egiteko tokia nire etxea izango da. Astero edo bi astetan behin (lan kargaren arabera) tutorearekin bilerak egindo dira proiektuaren jarraipena egiteko.

## **1.9 Bideragarritasuna**

### **1.9.1 Bideragarritasun kontzeptuala**

Proiektuak konplexutasun handia dauka: Python, MongoDB, Vagrant, EDX... Elementu berri asko agertzen dira. Gainera lan egiterakoan kontuan hartu behar da bi plataforma egongo direla martxan eta RAM memoria karga handia izango duela horrek suposatuko duen moteltasunarekin.

Baina Python oinarri kontzeptual bat dagoenez eta ikasiko denarekin posible izango da aplikazioa garatzea. MongoDB datu baseari buruz ere gai izango naiz bere funtzionamendua ikasteko JSON fitxategiekin lan egiten baitu, eta menperatuko ahal izango dira. EDX martxan jartzea ez da erraza izango baina bere web gunean dauden gidak jarraituz eta galderen foroak erabiliz bideragarria izango da inplementazioa.

### 1.9.2 Bideragarritasun ekonomikoa

Orain aztertuko da proiektua aurrera eramateko behar diren baldintzak onargarriak diren, balorazio ekonomikoa egin ahal izateko.


- **Eskulana:** eskulana kostuak kalkulatzeko egindako denbora estimazioa hartuko da kontuan, hau da, 450 ordu. Orduko kantitatea junior programatzaile eta ingeniari informatiko batentzat 18 euro izango da. Beraz, **450 ordu x 18 euro/orduko = 8100 euro**
- **Hardware:** proiektua garatzeko erabiliko den materiala Toshiba Satellite portatila izango da. 4GB-eko memoria nagusia beharrezkoa zen bi plataforma martxan eduki ahal izateko. Bere prezioa **700** eurokoa izan da. Segurtasun kopiak egiteko, Toshiba kanpoko disko gogor bat erabiliko dut. Disko gogor honen prezioa 50 eurokoa izan da.
- **Software:** erabiliko den software-aren zerrenda luzeagoa izango da, baina ez du kosturik izango. Alde batetik Ubuntu linux distribuzioa erabiliko da lan inguru moduan, honek ez du gastu ekonomikorik suposatzen. Ondoren, Moodle eta EDX plataformak ere ordaindu gabe lortu ahal dira. Dokumentazioa egiteko Google Docs eta OpenOffice erabiliko da, beraz berriro, gasturik gabe. Eta bukatzeko segurtasun kopiak *hodeian* ere egingo dira eta horretarako Google Drive erabiliko dut.
- **Gastu gehiago:** zuzendariarekin bilerak egiteko garraioak **100** euro inguru suposatuko du. Argi korrontea, **40** euro. Internet konexioa, **80** euro.

Beraz gastu totalak hurrengoak izango dira:

Kontzeptua	Kostua
Eskulana	8100
Hardware	750
Software	0
Beste motatako gastuak	220
<b>TOTAL</b>	<b>9070 euro</b>

### 1.10 Lanaren deskonposaketa egitura diagrama

Proiektuak lau zati nagusi izango ditu. Alde batetik lan-inguruko instalazioa eta bestetik Script-aren garapena. Proiektua Ubuntu garatuko da plataforma hauek linux-era bideratuta daude eta.



*Irudia 2: Lanaren deskonposaketa diagrama*

## 2. Softwarearen garapenerako prozesu bateratua

Ondorengo puntuetan proiektuaren garapena betetzeko eman beharreko pauso guztien azalpena dago.

### **2.1 Eskakizunen bilketa**

Orokorrean, proiektu honen eskakizun nagusia ikastaroen kopiak egitea da EDX-n importatu ahal izateko. Baina lan guztietan bezala, honetan denbora mugatua da eta eskatzen dena da ikastaroko elementurik erabilienak itzultzea. Horrela egiaztatuko dugu posible dela plataforma batetik bestera ikastaroen migrazioa egitea.


Aukeratu ditudan elementuak hauek izango dira:

- Label: etiketak azalpenekin.
- URL: kanpoko guneetara link-ak.
- Test: galderak mota desberdinekoak, MultiChoice, True/False eta ShortAnswer.
- Fitxategiak: fitxategi estatikoak, apunteen PDF-ak, txt-ak, etab.
- Foroak: foroetako hasierako mezuak integratuko dira EDX-n.

Gainera, hau egin ahal izateko bi plataformak guztiz kontrolpean izan beharko dira, beraz aztertu behar dira bakoitzak erabiltzen dituzten formatuak eta egiturak eta loturak ezarri.

## 2.2 Domeinuaren eredia

Proiektua bi zatitan banatu da; alde batetik foroak eta bestetik ikastaroaren beste elementu guztiak. Foroarena *forum* izango da eta bestea *moodle2edx* script nagusia.




Irudia 3: Domeinuaren eredia Moodle2Edx

### 2.2.1 Moodle2Edx

Ereduan bi adar dauzka alde batetik Moodle segurtasun kopia .mbz formatuan eta bestetik Edx-koa .tar.gz. Aplikazioak .mbz bakarra jasoko du eta Edx segurtasun kopia bakarra bueltatuko du.

Segurtasun kopia bakoitzeko ikastaro bakarra dago eta hurrengo mailan, domeinuaren eredian ikusten dugun moduan, elementu desberdinak daude. Baina plataforma bietan ez daude elementu mota berdinak. Moodle-en *Label* eta *URL*-ak desberdintzen dira eta Edx-n biak sartuko ditut *HTML*-n. Gainera *Test*-etan Moodle-en *MultipleChoice* eta *True/False* mota desberdinak daude eta Edx-n biak itzuliko ditut *MultipleChoice* moduan.

## 2.3 Erabilpen kasuak



*Irudia 4: Erabilpen kasua Moodle2Edx*

Proiektu honetan erabiltzaile mota bakar bat egongo da. Erabiltzaile honek bi Script dauzka exekutatzeko:

**Moodle2edx:** ikastaroa itzultzeko Script-a da. Sarrera moduan mbz fitxategi bat jasoko du eta tar.gz fitxategia irteera moduan. Lehenengo Script honek foroak daudela detektatzen badu, erabiltzaileari esango dio bigarren Script-a erabiltzeko.


**Foroen Script-a:** erabiltzaileak kasu honetan bakarrik foroak elementuak itzuli nahi ditu. Foroak informazioa JSON fitxategi batean jasoko du.



## 2.4 Diseinua

Lan honen diseinua azaltzeko arkitetktura, klase diagrama, eta sekuentzia diagramak erabiliko ditut.

### 2.4.1 Arkitektura



#### *Irudia 5: Arkitekturaren diagrama*

Script-a garatzeko Python erabiliko dut, XML fitxategiak kudeatzeko oso aukera ona delako. Klase nagusi bat izango du (Moodle2Edx klasea) eta barruan hainbat funtzio. Sarrera moduan .mbz fitxategi bat jasoko du eta irteerak ikastaro karpeta eta karpeta hori komprimituta .tar.gz formatuan.

## 2.4.2 Soluzioaren Funtzio garrantzitsuak

Ondoren funtzio garrantzitsuenek egiten dutena azalduko dut:

Funtzioa	Deskribapena
<code>__init__(self, infn, edxdir='.', org="UnivX", semester="2015_Spring", verbose=False, clean_up_html=True):</code>	Moodle2Edx klaseko funtzio eraikitzailea da. Honek mbz-ko datuak aterako ditu, eta activity guztiak zeharkatuko ditu activity2chapter() funtzioari pasatuz.
<code>activity2chapter(self, activity, sections, cxml, seq, vert, qdict)</code>	Funtzio honek <i>activity</i> bat jasotzen du eta sequential bat bihurtu behar du.
<code>convert_static_files(self)</code>	Fitxategien informazioa hartzen du files.xml-tik eta kopiatzen ditu edx ikastaro karpetara.
<code>set_course_image(self, cxml):</code>	Edx ikastaroko hasierako irudia kopiatzen da eta xml egokia modifikatzen da.
<code>get_moodle_section(self, sectionid, chapter, activity_title="")</code>	Moodle-eko section batetik izena eta identifikatzailek ateratzen ditu eta sequential berri bat sortzen du datu horiekin.
<code>import_moodle_resource(self, adir, vert)</code>	Fitxategiak importatzeko funtzioa da.
<code>import_quiz(self, adir, seq, qdict)</code>	Galderak kargatzen ditu.
<code>import_moodle_label(self, adir, ver)</code>	Label edo etiketak importatzen ditu html bezala.
<code>import_moodle_url(self, adir, ver)</code>	Kanpoko web gunetara loturak importatzen ditu.


## 2.4.3 Sekuentzia Diagrama

Normalean sekuentzia diagramak klaseen arteko komunikazioa irudikatzeko erabiltzen da, baina kasu honetan klase bakar bat dago (Moodle2Edx). Hala ere, erabaki da sekuentzia diagrama egitea funtzio desberdinen arteko loturak azaltzeko.

Erabiltzailea administratzailea izango da, ikastaroak importatzeko eta esportatzeko baimen bereziak beharko ditu eta.

Hurrengo sekuentzia diagraman funtzio nagusien exekuzio fluxua irudikatzen da, loop batekin "section" guztiak zeharkatzen eta iterazio bakoitzean "section" horren mota filtratuz itzulpen espezifikoak eginez.

"Section" mota bakoitzeko azpielementuak tratatuko dira modu berezian.



## 2.5 Inplementazioa

Aurreko puntuetan azaldu den moduan, proiektu honetan oso garrantzitsua izan da programatzen hasi baino lehen egin behar izandako lana plataformak ondo ezagutzeko eta aztertzeko. Beraz ondorengo puntuetan Moodle eta Edx-ri buruzko informazio orokorra azalduko da haien instalazio prozesuak deskribatu baino lehen.

### 2.5.1 Moodle sarrera

**Zer da?** Moodle ikaskuntza kudeatzeko sistema libre bat da. Moodle-en irakasleek haien webgune propioak sortu ahal izango dituzte ikastaroz beteta ikaskuntza hedatuz edonoiz, edonon.

#### Ezaugarriak

Hauek dira plataforma honen ezaugarri nagusiak:

**Interfazea:** gaurkotua eta erabiltzeko erraza, mota guztietako erabiltzaileei zuzenduta dago.

**Pertsonalizazioa:** irakasleak bere ikastaroak moldatu ahal ditu, aukera askorekin.

**Elkarlana:** foroak, wikiak, glosarioak eta mota askotako aktibitateak daude ikasleek elkarrekin jakintza partekatzeko.

**Jakinarazpenak:** irakasleak ikasleekin kontaktatzeko aukera dauka edozein unetan.

**Testu editorea:** simple eta erraza erabiltzailearentzat, multimedia gehitzeko aukerarekin.

**Fitxategien kudeaketa:** arrastatu eta kokatu fitxategiak modu erraz eta antolatuan, beste biltegitratze zerbitsuetatik egiteko aukerarekin: Microsoft Skydrive, Dropbox, eta Google Drive.

#### Kudeaketa ezaugarriak

**Kopuru handiko autentikazio seguruak:** izena emateko, erabiltzaileak eta ikastaroak gehitzeko 50 baino aukera gehiago

**Baimenen kudeaketa:** segurtasuna ziurtatu *rol*-ak definituz eta erabiltzaileen baimenak kontrolatuz.

**Multihizkuntza:** ikastaroak hizkuntza desberdinetan ikusteko aukera dago.

**Ikastaro asko sortzeko ahalmena:** ikastaroak loteka gehitu ahal dira, eta atzera egiteko aukera dago modu errezean segurtasun kopiak erabiliz.

**Plugin-ak:** osagarriak gehitu, kendu, gaitu edo desgaitu ahal dira kudeatze interfazetik.

**Eguneratze erregularrak:** segurtasuna indartzeko partxeak.

## 2.5.2 Moodle instalazioa

Moodle2edx proiektua Ubuntu linux inguruan garatu da beraz Ubuntuko instalazioa azalduko da.

Lehenengoz eta behin plataformako oinarria ezarri behar da. Instalazioa gida honen bidez :

Oinarriak hiru adar nagusi dauzka, Apache zerbitzaria, Php, eta MySQL.



*Irudia 7: Moodle osagaiak*

Estekan dagoen laguntzarekin instalazioa burutuko da arazorik gabe. Ondoren, Moodle deskargatuko dugu, proiektu honetan erabilitako bertsioa **Moodle 2.6.8** da, nahiz eta bertsio berriagoak egon, hau erabaki zen inplementatzea erabiliena delako gaur egun.


Moodle paketea deskargatu ondoren, bere edukia **/var/www/html/** direktoriaira kopiatuko da, zerbitzaritik atzigarria izateko.

Ondoren MySQL server-en konfigurazioa egin behar da, Moodle-ek bere kontsultak ondo egin ahal izateko.


Orain Moodle-era sartzeko gai izan behar dugu <http://IP.ADDRESS.OF.SERVER/moodle> url-tik nabigatzailearen bidez. Konfigurazio pauso batzuk agertuko dira baina gidan agertzen da argi eta garbi zer jarri behar den eremu bakoitzean. Puntu honetara ailegatzen bagara arazorik gabe, badaukagu Moodle funtzionatzen gure makinan.

### 2.5.3 Moodle ikastaroen egitura

Proiektu honen helburua ikastaroen migrazioa egitea da, beraz, oso garrantzitsua da plataforma bakoitzean ikastaroek dauzkaten elementu posibleak eta zer motatako egituran dauden kokatuta. Moodle-eko ikastaroak “Section”-etan zatituta daude, “Section” edo atal bakoitzean gehitu ahal ditugu “Activity” edo “Resource”-ak. Elementu hauek mota askotakoak izan daitezke:



*Irudia 8: Moodle activities*




*Irudia 9: Moodle resources*

Elementu hauetatik hauek aukeratu ditut: *Quiz*, *Forum*, *File* eta *Label*-ak, gehien erabiltzen direnak direlako eta orduan gure aplikazioak elementu hauen itzulpena eginez gero, jasoko dugun kopia nahiko osoa izango da.

## 2.5.4 Moodle Backup

Moodle-en segurtasun kopiak egitea oso erraza da; Administratzaile kontu batekin sartu behar gara ikastaro baten orri nagusian, eta *Administration>Course Administration>Backup*.

Backup menuan agertuko den lehenengo menuan hainbat aukera dauzkagu, adibidez ikastaroko erabiltzaileen informazioa babestu nahi dugun, edo log-ak sartu nahi ditugun, etab.



The image shows a screenshot of the Moodle backup settings interface. At the top, there is a section titled "1. Initial settings" with a right-pointing arrow. Below this, the "Backup settings" section is expanded, showing a list of options with checkboxes. The options and their states are:










- IMS Common Cartridge
- 1.1
- Include enrolled users
- Anonymize user information
- Include user role assignments
- Include activities and resources
- Include blocks
- Include filters
- Include comments
- Include badges
- Include calendar events
- Include user completion details
- Include course logs
- Include grade history
- Include question bank

*Irudia 10: Moodle backup settings*

Hurrengo urratsean ikastaroko elementu guztietatik zeintzuk kopiatu nahi ditugun zehaztu beharko dugu.


1. Initial settings ▶ 2. Schema settings ▶ 3. Confirmation and review ▶ 4. Perform backup ▶

Include:

Select	All / None (Show type options)	Select	All / None
<b>General</b> <input checked="" type="checkbox"/>		<b>User data</b> <input checked="" type="checkbox"/>	
<input checked="" type="checkbox"/>	Checking STACK and mathematics display 	-	<input checked="" type="checkbox"/>
<b>Learning how to use STACK for students</b> <input checked="" type="checkbox"/>		<b>User data</b> <input checked="" type="checkbox"/>	
<input checked="" type="checkbox"/>	Syntax instructions. 	-	<input checked="" type="checkbox"/>
<input checked="" type="checkbox"/>	Syntax quiz 	-	<input checked="" type="checkbox"/>
<b>Demonstration quizzes</b> <input checked="" type="checkbox"/>		<b>User data</b> <input checked="" type="checkbox"/>	
<input checked="" type="checkbox"/>	Demonstration Quiz 	-	<input checked="" type="checkbox"/>
<input checked="" type="checkbox"/>	Find examples.... 	-	<input checked="" type="checkbox"/>
<input checked="" type="checkbox"/>	Ordinary Differential Equations 	-	<input checked="" type="checkbox"/>
<input checked="" type="checkbox"/>	Matrix examples 	-	<input checked="" type="checkbox"/>
<input checked="" type="checkbox"/>	GeoGebra Example 	-	<input checked="" type="checkbox"/>
<input checked="" type="checkbox"/>	Partial Fractions 	-	<input checked="" type="checkbox"/>

Irudia 11: Moodle schema settings

Ondoren konfirmazio pantaila bat agertuko da eta dena ondo baldin badago, Moodle hasiko da segurtasun kopia egiten.




Irudia 12: Perform backup pantaila



## 2.5.5 Moodle backup egitura

Deskargatuko den fitxategia **.mbz** formatua izango du, hau da Moodle-ek erabiltzen duen luzapena bere backup-entzat. Proiektua ulertzeko oso garrantzitsua da fitxategi hauen estruktura aztertzea.

Hurrengo eskeman ikusten da bere egitura:



*Irudia 13: Moodle backup egitura*

Hauetatik, moodle2edx-an garrantzitsuenak izango diren elementuak aztertuko dira:

- **moodle\_backup.xml**: xml fitxategi hau segurtasun kopiako elementu nagusia da, backup osoari buruzko informazioa dauka. Hasieran kopia eta ikastaroaren informazioa dago, eta gero **<contents>** etiketaren barnean gehien interesatzen zaiguna dago: aktibitateak eta atalak.
  - **<activities>**: atal honetan *activity* guztien zerrenda daukagu. *Activity* bakoitzeko identifikatzailea, moduluaren izena eta bere kokapena segurtasun kopian (activities karpetan) agertuko zaizkigu.

- **<sections>**: section bakoitzaren *id*, izenburua eta direktorioa (sections karpetan)
- **questions.xml**: galderari buruzko informazioa, enuntziatuak eta erantzunak.
- **activities**: karpeta honetan *activity* edo *resource* bakoitzeko beste karpeta bat dago fitxategiekin.
- **course**: ikastaroari buruzko informazioa fitxategi desberdinetan, hauek dira garrantzitsuenak:
  - course.xml: informazio orokorra, ikastaroaren izena, sarrera, etab.
  - calendar.xml: egutegiko ekitaldiak.
  - roles.xml: erabiltzaileen baimen eta rol-ei buruzko informazioa.
- **sections**: atal bakoitzeko karpeta bat dago eta karpeta horren barruan, bi fitxategi:
  - section.xml: atalari buruzko aukerak (zenbakia, ikusgai dagoen...)
  - inforef.xml: informazio gehigarria.

## 2.5.5 EDX sarrera

### Zer da?

MIT (*Massachusetts Institute of Technology*) eta Harvard unibertsitateek garatutako ikastaroak eskaintzeko open-source plataforma bat da, hau da, MOOC bat (*massive open online course*). 2012-tik unibertsitate mailako ikastaroak eskaintzen ditu mundu osoan eta kosturik gabe ikaslearentzat.

Bi milioi erabiltzaile dauzka gaur egun.

Haien helburu nagusiak:

- Kalitatezko hezkuntza guztiontzat, edonon.
- Irakaskuntza hobetzea, campusean eta online.
- Ikaskuntza eta irakaskuntza aurrera eraman ikerketaren bitartez.

### Ezaugarriak

EDX-k Moodle baino gauza gutxiago egiten ditu, baina egiten dituenak ikasle kopuru handiekin eta eraginkortasun askorekin eskaintzen ditu. Gainera bideratuta dago ikastaro irekiak egiteko, Moodle-en ere bai, baina EDX-k ematen du hobeto garatuta dagoela horretarako. Bere arkitektura konplexuak erabiltzaile kopuru oso handiak jasotzeko prest dago.

Moodle unibertsitate edo institutoetan erabiltzeko oraindik oso aukera ona da, baina EDX-ren helburua mundu osoan irakastera enfokatuta dagoela uste dut. MOOC ikastaroak irakastera enfokatuta dago, machine learning teknikak erabiltzen ditu ariketak automatikoki zuzentzeko, bideoekin lan egiteko oso bideratuta dago (adibidez azpтитuluak eta bideoetan esaten dena sinkronizatzea ahalbidetzen du)

Oraindik garatzen ari dira funtzionalitate gehiago eta lan talde handi bat daukate lanean, Vagrant box-ak eguneratzen dituzte denbora epe laburretan.

Moodle-en eta beste MOOC batzuetan administratzaileak eta erabiltzaile arruntak zerbitzari berdinean egiten dute lan. EDX-n ez; hemen hiru zerbitzari desberdin dauzka:

- **Studio:** ikastaroen administrazioa egiteko.
- **LMS:** zerbitzaria ikasleentzat.
- **Forum:** foroak kudeatzeko sistema independente bat dago. Hau Ruby-n dago garatuta.

Banaketa honek bere alde onak eta txarrak dauzka. Nire kasuan batzuetan nire makinan totalera lau zerbitzari izan ditut martxan, (Moodle, Studio, LMS eta Forum) eta honek moteltasun aldetik zailtasun bat izan da.

Proiektu honetan gehien erabiliko dudan zerbitzaria *Studio*-rena izango da, baina *LMS*-n probak egingo ditut egiaztatzeko ikastaroen funtzionamendua. Forum zatia beste Script batean tratatuko dut, beste zerbitzari eta formatu desberdinean tratatzen delako.

## 2.5.6 EDX instalazioa

Edx instalatzeko gida <http://code.edx.org> web gunean dago, eta hor izango ditugu repositorioak, argibideak, etab.

### Aurrebaldintzak

Proiektua Ubuntun garatzen dut beraz nire Ubuntu makinan VirtualBox eta Vagrant azkeneko bertsioak izan beharko ditut instalatuta EDX makina birtuala inplementatzeko.

Gainera Vagrant erabiltzeko bere funtzionamendua ikasi behar dut. Vagrant box-a direktorio batean instalatuko dut eta bertan hurrengo aginduak erabiliko ditut:

- vagrant up : makina arrankatzeko.
- vagrant ssh: makinara konektatzeko ssh-ren bitartez.
- vagrant halt: makina gelditzeko. Hau garrantzitsua da egitea beti, bestela arazoak egon daitezke hurrengoetan makina birtuala martxan jartzeko.

Vagrant instantzia sortzen dugunean, box bat deskargatuko da 4GB okupatzen dituena. *Vagrant instance* hori ezabatuz gero, berriro kargatu ahal da *box* horretatik.

### Faseak

Instalazioa burutzeko hurrengo url-an dagoen gida jarraitu da:

<https://github.com/edx/configuration/wiki/edX-Developer-Stack>

Gidako pauso garrantzitsuenak zenbatuko ditut:

- 1) Vagrant instantzia sortzea eta deskargatzea
- 2) Makina birtualera konektatzea vagrant ssh eginez.
- 3) edxapp kontura pasatu, sudo su edxapp komandoren bitartez.
- 4) Studio zerbitzaria martxan jarri
  - 4.1) Arrankatzeko: `paver devstack studio`. Lehenengo aldiz komando hau erabiliko dugu bestela ez delako dena ondo kargatzen. Baina hurrengoetarako badago modu azkarrago bat egiteko: `paver devstack --fast studio`.

- 5) LMS zerbitzaria martxan jarri:
  - 5.1) Arrankatzeko: `paver devstack lms` Lehenengo aldiz komando hau erabiliko dugu bestela ez delako dena ondo kargatzen. Baina hurrengoetarako badago modu azkarrago bat egiteko: `paver devstack --fast lms`.
- 6) Martxan jartzeko prozesua bukatzen duenean, link bat agertuko da zerbitzaria atzitzeko gure nabigatzailearekin.
- 7) Plataforma erabili ahal izateko kontu bat sortu beharko dugu. Nabigatzailean agertuko den formularioa bete ondoren, konfirmazio mail bat bidaliko da. Baina hemen arazo bat egon daiteke gure sistemak ez badauka SMTP zerbitzaria konfiguratuta ez dugu mailik jasoko. Orduan bi aukera dauzkagu:
  - 7.1) SMTP zerbitzaria konfiguratzea, adibidez nire kasuan nire etxeko Euskaiteko SMTP zerbitzua erabili nuen.
  - 7.2) Zerbitzariaren kotsolan bilatu ahal dugu bidalitako mezua aurkitu arte. Modu honekin ere konfirmazio url-a lortu ahal izango dugu. Baina etorkizunean arazo berdina izan dezakegu.
- 8) Forum zerbitzaria prestatzeko, forum erabiltzaile kontura pasatuko gara `sudo su forum` eginez.
  - 8.1) Aurreko puntuetan EDX forum zerbitzaria komentatu dudan moduan, Ruby-n garatuta dago. Horregatik Ruby baldintzak eguneratu beharko ditugu `bundle install` komandoarekin.
  - 8.2) Ondoren zerbitzaria martxan jartzeko, `ruby app.rb -p 18080`

### **Instalazioan izandako arazoak**


Aurreko puntuetan ikusi dugunez, EDX-ren egitura ez da Moodle-ena bezain simple. Instalazio prozesuan hasieran arazoak izan ziren plataforma ondo ezagutu arte.

Vagrant box gaizki deskargatu zen eta horren ondorioz sistemaren errekurtsio batzuk faltan zeuden, eta zerbitzariak martxan jartzea ezinezkoa zen. Hau konpontzeko egin zena izan zen Vagrant instantzia ezabatzea eta berriro instalatzea dena. Hurrengoan Vagrant box-a ondo deskargatu zen bere osotasunean eta lortu nuen plataforma martxan jartzea.

Hurrengo arazoak etorri ziren makina birtuala gaizki itzaltzearen ondorioz, bateria faltagatik portatiblean. Sistema blokeatzen zen eta log fitxategiak begiratu behar izan ziren jakiteko hori zela arazoa.

## 2.5.7 Edx arkitektura

Hurrengo irudian ikusten da nola dagoen diseinatuta EDX:




Irudia 14: EDX arkitektura

Gorritz markatutako eremuak dira proiektu honetan gehien aztertu eta erabili diren zatiak.

## 2.5.8 MongoDB

EDX-k MongoDB datu base mota erabiltzen du foroetako informazioa biltegitzeko. MongoDB NoSQL familiako datu-baseak kudeatzeko sistema da. Dokumentuetan oinarritua da, datu-basean dokumentuak BSON formatuan gordetzen dira. BSON formatua MongoDB-ren garaitzaileek sortu duten JSON formatuan oinarrituta.

MongoDB-ren ezaugarri nagusiak eraginkortasuna, datu-ereduaren sinpletasuna eta eskalagarritasuna dira.



*Irudia 15: MongoDB-ren kokapena Edx-ren arkitekturan*

Edx-ren arkitekturan *Comments Service* da MongoDB-rekin komunikatzen den zatia. Mongo-n sartzeko hurrengo pausoak jarraitu behar dira:

- `cs_comments_service` atalean sartzeko:  
`sudo su forum`
- MongoDB-n sartzeko:  
`mongo`
- Mongon datu base desberdinak ikusteko  
`show dbs`
- Gure kasuan, mongoDB-n foroko mezuak aztertzeko  
`cs_comments_service_development` datu basea erabili behar dugu:  
`use cs_comments_development`

- Hurrengo mailan *collections* dauzkagu. Hiru *Collection* daude kasu honetan:
  - *Contents*: foroko mezuen informazioa.
  - *Users*: erabiltzaileen informazioa.
  - *Subscriptions*: erabiltzaileen harpidetzak postekin.

*Collection*-ak ikusteko komandoa:

```
show collections
```


Hurrengo pausoan *collection* bat aukeratu beharko genuke eta bere edukia aztertu ahal izango genuke hurrengo komandoa erabiliz:

```
db.collectionIzena.find().pretty()
```



## 2.5.9 Edx ikastaroak Studio-n


Gure *Studio* zerbitzarian sortutako ikastaroek honelako itxura daukate:



*Irudia 16: Edx interfazea*

Ikusten denez, ikastaroaren edukia atal desberdinetan banatzen da (Section) eta ondoren azpiatalak (Subsection) azkenean Unit-ak gehitzeko.

Unit berri bat sortzea aukeratu gero, hurrengo pantaila agertuko da:




*Irudia 17: Edx elementu nagusiak*

Hurrengo puntuetan aztertuko dira elementu hauek zehazki baina orokorrean foroko elkarrizketak, HTML orriak, test galderak eta bideoak gehitzeko balio zaizkigu.


## 2.5.10 Edx backup egitura

Edx-n segurtasun kopiak egiteko *Tools* gohiko menuan export aukeratu behar da eta .tar.gz formatuko fitxategi bat sortzea eskainiko digute.




*Irudia 18: Course export*

Orain aztertuko dut EDX ikastaro baten egitura, karpitetan antolatuta. Edx ikastaroetan elementu hierarkiak garrantzi handiagoa dauka, hurrengo grafikoan ikusten da argi:




*Irudia 19: Edx backup egitura*

“Course” baten barruan “Chapter” zerrenda bat izango dugu eta “Chapter” bakoitzean “Sequential”-ak. “Sequential”-en barruan “Vertical”-ak ikusiko ditugu. Hauek dira gehien erabiltzen direnak, mota desberdinekoak daudelako eta haien parekoa aurkitu behar da Moodle-en “activity”-en artean.



*Irudia 21: Edx elementu hierarkia*

Aurreko puntuetan ikusi ditugu zeintzuk diren Moodle “activity” motak, orain Edx “vertical”-ak ikusiko ditugu parekotasunak egiten hasi ahal izateko eta mapeoak egiten hasteko XML fitxategiekin.



*Irudia 20: Vertical motak*


- Discussion: hauek Moodle-eko “Forum”-ekin lotuko dira.
- HTML: elementu honetan Moodle-eko activity asko sar daitezke: *label, url, page...* Dena html lengoaia erabiliz.
- Problem: “Quiz” parekoak dira. MultipleChoice, True/False eta ShortAnswer dira itzuliko direnak.
